

## COVID-19 protokoloa, ebaluazio-probetarako

### 2021/22 ikasturtea – Lehenengo lauhilekoa

Pandemiaren egungo egoeraren aurrean, eta urtarrilerako aurreikuspenak kontuan hartuta, 2021/2022 ikasturteko lehen lauhileko azterketen deialdi ofizialean UPV/EHUko ikastetxe guztietan aplikatu beharreko jarraibide batzuk helarazten dizkizuegu:

Ebaluazio-proba guztiak egutegi ofizialean jasotako datan, orduan eta gelan egingo dira:

- <https://www.ehu.eus/es/web/gizarte-komunikazio-zientzien-fakultatea/azterketak>

#### **Eraikineraren sartzea**

Orain arte bezala, maskara modu egokiz erabiltzea derrigorrezkoa da zentroetako espazio guztietan, uneoro.

Maskara ez dela kenduko bermatzeko, ezin izango da edan edo jan ikasgeletan, ezta ikastetxeko korridoreetan edo gune komunetan ere.

Azterketetan, erabilgarri dauden espazio guztiak erabiliko dira, eta azterketa bakoitzean, erreserbatutako gela guztiak erabiliko dira, ahal den neurrian pertsonen arteko distantzia handienak errespetatuz.

Pertsonen kontzentrazioak saihesteko, azterketak egiteko, esleitutako gelara joango gara zuzenean. Proba egin baino 15 minutu lehenago egongo da irekita gela hori, eta eskuragarri dauden lekuak erabiliko dira.

Kasu guztietan pertsona taldeak ezingo dira eraikinaren eskailburuetan, korridoreetan edo gune komunetan egon, proba egin aurretik edo ondoren. Azterketa egiteko ezinbestekoa den gutxieneko denbora eman beharko da eraikinean.

#### **Gelako higiene-neurriak**

Une oro mantendu beharko da mahaiek eta aulkiek gelan duten kokapena, segurtasun-distantzia bermatzeko.

Ezarrirako oinarriko higiene-neurriak mantenduko dira (maskarak modu egokian jarrita, ezingo da jan eta edan), eta pertsona guztiek eskuak garbitu beharko dituzte probak egin aurretik eta ondoren.

Espazio guztiek hidrogela eta garbitzeko produktuak izango dituzte.

Ikasleek beren materialak soilik erabiliko dituzte (boligrafoak, etab.), eta horiek ezin izango dira inola ere partekatu.

Norberaren gauzak (poltsak eta motxilak) dagokion mahaiaren azpian jarriko dira, inoiz ez eremu komunetan. Ikasgeletara tamaina handiko objektuekin sartzea saihestuko da (maletak, etab.).

Ikasgelak behar bezala aireztatzeko, atea eta leihoak une oro irekita egongo dira, beraz, zentzura beroki egokiak eramatea gomendatzen da.

Kanpoko aireztapenik gabeko barruko espazioetan, aireztapen automatikoko aparatuak ezin izango dira inola ere itzali.

Gelak hutsik egon beharko dira 7:45-9:00, 13:30-15:00 eta 19:30-20:45 bitartean, garbiketa eta desinfekzio lanak errazteko.

Orain arte adierazitakoa ikasgelei eta gune komunei edo pasaguneei dagokie, eta ez beren funtzionamendu-neurriak dituzten jantokiei eta ikasteko gelei.

### **Ikastetxera ezin sartu COVID-19 dela eta**

Azterketa egin aurretik COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak dituzten pertsonak ez dira zentzura joango.

Gradu eta Graduondoko Errektoreordetzaren 2020ko urriaren 9ko zirkularrak jasotzen duen bezala, ikasleren bat ezin bada ikastetxera joan, COVID-19 dela eta (PCR positiboa, konfinamendua, zaugarritasuna...), ebaluazio-proba bat egiteko, horren berri izan bezain laster jakinarazi beharko du, betiere proba hasi baino lehen.

Ikastetxera bertaratzeko ezintasun horren berri eman beharko zaio irakasleari - edo, hala badagokio, irakasgaiaren ardura duen sailari-, bai eta ikastetxeko idazkari akademikoari ere([gkz.covid19@ehu.eus](mailto:gkz.covid19@ehu.eus)).

Kasu horietan, irakasgaietako irakasleek bi ebaluazio-aukera hauetako bat eskaini ahal izango diete ikasleei:

- Proba gainerako ikasleen egun eta ordu berean egitea, online modalitatearen bidez.
- Beste proba bat aurrez aurre egitea, azterketa-aldi ofizialaren barruan edo azterketa-aldi ofiziala amaitu ondorengo hamar egun naturaleko gehieneko epean:
  - Muga-eguna 1. Lauhileko ohiko deialdirako: 2022ko urtarrilaren 31a
  - Muga-eguna 1. Lauhilekoan ezhoiko deialdirako: 2022ko otsailaren 7a.

Ikasle batek COVID-19 sintomak hasten baditu ebaluazioaren zehar, indarrean dagoen protokoloa aplikatuko da.

Hezkuntza-premia bereziak dituzten eta online ebaluazioa egin behar duten ikasleak izanez gero, probak egokitzeko gomendioak jasotzen dituen gida bat aurki daiteke helbide honetan: <https://www.ehu.eus/es/web/discapacidad/online-ebaluazio-probetarako-hezkuntza-premia-bereziak-dituzten-ikasleen-arreta>

Probaz arduratzen den irakasleak, COVID-19 dela eta, baina laneko bajan egon gabe, ezin badu aurrez aurre joan aurreikusitako datan, irakasgai hori ematen duten beste irakasle eta ikertzaileak egongo dira proban (edo, irakaslerik ez balego, sailak horretarako izendatutako irakasleak). Kasu horretan, modu presentzialean egoterik ez duen irakasleak WEBEX bidez jarraitu ahal izango du proba, eta sortzen diren kontsultei erantzun ahal izango die.

Irakaslea laneko bajan badago, irakasgaiaren ardura duen sailak ohiko neurriak hartuko ditu.

**Leioa, 2022ko urtarrilaren 7an**